

KONTROL MOZIOA

ADINEKO ARRETAN GIZARTE ZERBITZUETAN EGON DAITEZKEEN ALDAKETAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2017ko azaroaren 13an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urrian hainbat hedabideren bidez jakin dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta zainketa sustatzeko prestazio ekonomikoak arautzen dituen Foru Dekretu proposamena egin duela.

Aipatu beharra dago Foru Aldundiak ez duela eragile sozialekin kontatu Foru Dekretu proposamena lantzeko garaian. Gardenena eta demokratikoena enpresekin, sindikatuekin, adineko pertsonen elkarteekin eta interesa duen edonorekin foru dekretuari buruzko bilerak egitea izango zen, haien ekarpenak eta iritziak jasotzeko, baina ariketa hori ez da egin.

Era berean, jakin dugu proposamena ez dela udalekin behar bezala kontrastatu eta Eudelek desasotasuna adierazi duela hainbat aldaketarekin. Batik bat, 27. artikuluan, udalei ezartzen zaie mendekotasun prestazioen onuradunek jasotzen duten zaintzari jarraipena egin beharra; zehazki, udal gizarte zerbitzuei. Pentsatzen dugu hori oso logikoa dela eta legeriarekin bat egiten duela eta zentzu horretan, ez diogu oztoporik ikusten proposatutakoari. Kontua da Aldundiak udalei ezartzen badie, gutxienez, urtean behin jarraipen hori egitearen derrigortasuna, onuraduna zein zaintzailea etxean elkarrizketatzea eta abar, logikoa ematen duela udalei ekonomikoki laguntzeak, baina laguntza ekonomikoarena ez dela inondik inora jasotzen, oraingoz.

Kontuan izan behar dugu 16.000 kasuri buruz hitz egiten ari garela Gipuzkoan, eta donostiarrak (heren bat baino gehiago) Udaleko gizarte zerbitzuen bidez jarraitzea proposatzen denez, horrek departamentuaren lan-karga areagotuko duela.

Azaroaren 9an, bilera bat egin genuen Donostiako Udaleko alderdi politikoen artean eta Gizarte Ekintzako delegatuak adierazi zigun Eudelen bidez lau alegazio aurkeztu direla udal guztien adostasunarekin:

1. 27. artikuluari alegazioa. Donostiako kalkuluen arabera eskumena transferitzen bada, 4,5 gizarte langile beharko ditugu lanei aurre egin ahal izateko eta hori ezin dugu egin finantzaziorik gabe.
2. 70 urtetik gorako pertsoneri ez eskatzea 13 orduko formazioa egitea beraien senideak zaindu ahal izateko.
3. Ez aplikatzea murrizketarik diru-laguntzetan, etxez etxeko laguntza erabiltzen bada.

4. 85 urtetik gorako zaintzaileei 12 hilabeteko epea uztea plangintza berri bat egiteko familian.

Nahiz eta, alegazio hauek era positiboan baloratu, EH Bilduk gabezia gehiago ikusten dizkio Foru Dekretu proposamenari. Izan ere, Maite Peña diputatuak berak prentsan egin dituen adierazpenetan argi adierazi du 8.844 pertsona aterako direla "irabazten" diru-laguntzen zenbatekoen sistema berriarekin, eta beste 5.509 pertsona aterako dira "galtzaile". Gure taldearen ustez, ez da onargarria irabazle-galtzaile logika hori, eta Foru Aldundiak bilatu beharko luke denok irabazle ateratzea. Honetaz interpelatuta, Udal Gobernuak ez zuen argibiderik eman batzordean.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Foru Dekretua argitaratzen denean azter dezala zer aldaketa emango den Donostiako onuradunen egoeretan.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azterketa horren ondorioak parteka ditzala Udalbatza osatzen dugun taldeekin eta interesa izan dezaketan eragileekin.

Donostian, 2017ko azaroaren 17an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzi